

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Giza baliabide eta intelektualeei dagokienez, beharrezkoak diren ikasketak eta esperientzia duten pertsonekin lan egingo dugu, bai aquapark-eko langileak, zein proiektuan parte hartuko duten eraikitzaile, arkitekto, etab. Gainera derrigorrezkoa batera lan egiteko abilezia izatea, lan-giroa ahalik eta onena izateko.



Baliabide fisikoekin jarraituz, ezinbestekoak izango dira materialen eta edifikazioen kalitatea, gehien bat askotan erabiliko direnak, txirristak, jatetxeak, komunak, aldagelak eta igerilekuak esaterako.



Finantza-baliabideei dagokionez, diru inbertsion handi bat beharrezkoa izango da proiektua aurrera eramateko. Gainera, ezinbestekoa izango da bankuari mailegu bat eskatzea, eta 4.000.000€-koa izatea aurreikusi dugu hainbat kalkulu egin ondoren.

